



ZINEMA ERE GORRENTZAT IZAN DAITEKEELAKO

Gorrei zuzendutako lehen zinema jaialdia antolatu du Gaintitzen elkarteak larunbaterako, zazpi laburmetraiekin >6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-10-24

VIURTEA 1.542.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Donostiako Koldo Mitxelena aurkeztu zuten atzo Abesbatzen Lehiaketaren 40. edizioa. I. TERRADILLOS

5 KONTINENTEKO ABESBATZEN HIRIBURU

TOLOSA 19 abesbatza lehiatuko dira 40. Abesbatzen Lehiaketan; lehen aldiz Taiwango koru batek hartuko du parte 3

Ibarran eta Tolosan Emakume pilotariaren eskola 5

Atxilotu baten abokatuak salaketa jarri du Ertzaintzaren aurka 5

Behar-Zana Endika Abril Txapelketaren finalerdian 4

XII. tolosa
goxua
Urriak 25 / San Frantzisko pasealekua



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Basakeriak Zumardi Handian

Asteburu honetan, gutxienez 3 koxeetan lapur-basakeriak burutu dituzte Ertzaintzaren kuarteletik 250metrora dagoen aparkalekuan. Lotsagarria da, ertzaintzaren komisaldegitik hain gertu dagoen aparkaleku honetan, horrelako gauzak gertatu eta besteik gabe geratzea. Zein ziurtasun daukagu? bai gune honeta edo Tolosako beste lekuetan autoa uztean? erantzukizunak eskatzen dizkiet udaltzainari, ertzaintzari eta Udalari.

Yosu.**Obrak beharrezkoak direla pentsatzen dut**

Benetan, ez dut kritikatuko nahi!!! Alderantziz, obrak beharrezkoak direla pentsatzen dut. Bizi kalitate hobetzeaz gain, lana sortzen baita. Baina Tolosako Udalak pentsatu al du, N-Ilean, Donostiako norantzan istripuren bat gertatzen bada Tolosa parean, nondik joan behar duten autoak. Zeren, Tolosa erditik ezin dute pasa!!! Ez dago irteerarik!!! Pentsatu nahi dut, planen bat eginda edukiko dutela ezta? Besterik gabe, sortu zaidan dudan bat.

Herritar bat.**Aparkalekuena Tolosan, lotsagarria**

Benetan, orain arte ez nuen inoiz idatzi atal honetan, baina gaur irakurri detenarekin yannahiko iruditzen zait. Tolosako komertzioetan kontsumitzea nahi dute eta Udalari hainbeste gustatzen zaion kanpaina hoitako bat aurkeztu dutela irakurri dut. Oso polita, etorri Tolosara eta erosi hemen... baina aparkatu nun? Bai, bai, San Estebango aparkaleku

horrena aterako da. Hori bultzatzen dutenek hor aparkatzen al dute? Edota Belateko aparkalekua, irakurri det ez dula ia inorrek erabiltzen, ezta?

Obrek inenaiz hasiko, beharrezkoak izango dira ta punto. Baina gauzak ez dira horrela egiten. Nola da posible alde batetik Tolosan aparkatzea ezinezkoa izatea eta bestetik hemen geratzea bultzatzea? Lehengo egunean 45 minutu egon nintzen aparkatu ezinik. Nahikoa dela iruditzen zait. Hori bai, dirua ateratzeko beti prest. Igarondoko pizinetako parking hori ere normalean al da? Jarri hori libre eta ez San Estebanen. Gainera, dena lokaztuta eta harriz beteta. Lotsagarria... Denok ezin dugu Triangulogoraje bat euki...

Tolosa.**Osasunkume lehiaketako sariarekin Urdaibaiera**

Pasa den urriaren 6tik 9ra Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH5. mailako ikasleak Urdaibaiera izan ziren. Ekainean,



Osasunkume lehiaketa irabazi ondoren, sariarekin lortutako diruarekin irteera hau egitea erabaki zuten eta.

Bertan jarduerak mordo egin zuten: body-board, eskalada, rappel, orientazioa, surf, tirolina, olinpiadak, mendi buelta...

Jesusen Bihotza ikastola (Villabona).**Ordainketa dagoeneko eginda...**

Aupa! Niri Voith-Gorostidiko etxe bat tokatu zait, eta hartu egin dut.

Gauza pila bat entzuten ai naiz kaltetik: ez dutela eraiki behar, Amena-barrek etxe batzuk utzi behar ditula, saldu gabe daudela batzuk,... Nik gauza hauek ez ditut sinesten, kalean asko gustatzen zaigulako hitzgi-tea jakin gabe. Baina benetan gustatuko litzaidake Udalek aurpegia eman eta gauzak argituko balituzte. Euren isiltasunak zurrumurru hauek handitu besteik ez ditu egiten. Nik dakidana da bigarren fasearekin ez direla hasi eta nik sarrera ordainduta daukadala dagoeneko, eta beste batzuk oandik sinatzeko... **Iban.**

K Kirol jarduerak**Gaur****Areto futbolak**

- Usabalgo goiko kantuan, 20:30ean: Laskorain-Tecnun.
- Usabalgo beheko kantuan, 20:30ean: Laskorain-Orixe.

Bihar**Txirindularitza**

- 16:00etan, Henialdeko Rolleski goiera, Belate pasealekuketik.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean infantilak: Mutilak TAKE C-BKL B; Mutilak TAKE B-Aloña Mendi; neskak TAKE B-Gamon.
- 12:00etan, kadeteak: neskak TAKE B-Ordizia; mutiak PDJ TAKE Tovar-Goierri.
- Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan, jubenilak: mutilak TAKE-Attco San Sebastian.
- Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan, nazional maila: Bide Bide Ibiza-UPV Alava.

Eskubaloia

- Beheko kantuan, 12:00etan kadeteak: Tolosa-Ordizia.

Areto futbolak

- Usabalgo beheko kantuan, 09:30ean, neska kadeteak.
- Usabalgo beheko kantuan, 10:30ean, mutil infantilak.
- Usabalgo beheko kantuan, Tolargi-Zarauz.

Futbola

- Berazubini, 16:30ean, Nazional Maila: Tolosa CF-Gernika.
- Usabalgo zelaian, 09:30ean, kadete 1. Maila: Tolosa CF-Intxurre.
- Usabalgo zelaian, infantilak: Tolosa CF-Aurrera Ondarroa.
- Usabalgo zelaian, emakumeen liga, Tolosa CF-Intxaurdi.
- Usabalgo zelaian, Gazteen Lehen Maila, Amaroiz-Lasarte.
- Usabalgo zelaian, Lurraldekako-en 1. Maila, Tolosa CF-Anaitasuna.

Urriak 26, etzi**Areto futbolak**

- Usabalgo goiko kantuan, 10:00etan Laskorain-Gopar.

Eskubaloia

- 12:00etan, Usabalgo goiko kantuan, Tolosa-Arrasate.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)



Ana Arretxe, Jokin Bildarratz, Haritz Solupe eta Mikel Irizar, atzo, Donostian, Abesbatza Lehiaketaren aurkezpenean. I. TERRADILLOS

Mundu osoko ahots gozoenak

40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa »

19 abesbatza ariko dira urriaren 29tik azaroaren 2ra arte; Taiwango koru bat lehenengo aldiz.

IÑIGO TERRADILLOS

Alemania, Katalunia, Txekia, Kuba, Estatu Batuak, Estonia, Euskal Herria, Finlandia, Hungaria, Letonia, Norvegia, Erresuma Batua, Errusia, Hegoafrika eta Taiwango 19 abesbatza hartuko ditu Tolosak urriaren 29tik azaroaren 2ra arte. 5 kontinenteko kalitatezko koruen hiriburu bilakatu da, beraz, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen duen 40. Abesbatza Lehiaketak irauten duen bitartean.

Berrikuntzen artean, lehen aldiz Taiwango koru batek hartuko du parte, hain zuzen ere, Taipeiiko Formosa Singers abesbatzak. Aipatzekoa da, baita ere, Kubako La

Habanako Exaudi abesbatzaren parte-hartzea, Abesbatza Lehiaketan irabazle izandakoak baitira. Euskal Herriak ere aurtan izango du ordezkaritza, batetik, Leioako Kantika Korala, eta bestetik, Donostiako Kup Taldea ariko baitira. Gainontzeko parte-hartzaileak polifonia, folklorea, musika erlijioso, profanoa eta haur abesbatza sailetan ondorengoak izango dira: Alemaniako Ensemble Vocal, Kataluniako Cor Amics de la Unio, Txekiako Gentlemen Singers, Motyli Sumper eta Prague Philharmonic Children's Choir, Estatu Batuetako The Antioch Chamber Ensemble, Estoniako Coro de la Academia de Musica y Teatro,

Finlandiako Audite Chamber Choir, Hungariako Camtemus Mixed Choir, Letoniako Youth Choir Kamer, Norvegiako Adur Vocal Ensemble, Erresuma Batuak Chantage, Errusiako Magdalena Vocal Ensemble eta Vdokhnovenije eta Hegoafrikako Singkronies Chamber Choir.

Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak Mikrokosmos frantziar abesbatzaren kontzertu berezia ere nabarmendu zuen, atzo egin zuten aurkezpenan. «Ikuskizun honek gaurko Abesbatza Artearen zerbitzurako *acapella* abesbatza kantua, zinema mutuko irudiak, dantza eta bideoa nahasten ditu».

19 abesbatzen lana epaituko duten adituak, Xabier Sarasola buru dutela, Brady Allred, Naomi Faran, Georg Grun, Mats Nilsson, Victor Smirnov eta Wilma ten Wolde izango dira.

40 urteko ibilbidea

Halaber, Arretxek Abesbatza Lehiaketaren hasiera nolako izan zen eta zein helburu zituen gogorarazi nahi izan zituen: «TEEko arduradunek lehiaketa bat sortzeko gogo handia zuten eta helburu gisa ondorengoak zituzten: edertasunaren adierazpen gisa abesbatza kantuaren sustapena, gure herriaren kulturaren gorakada, herriaren arteko topaketa eta hurbilketa eta gure kulturaren alderdirik nabarmenenaren zabal-kundea, hizkuntzarena alegia». Hala, 40 urte beranduago, TEE «harro» dagoela zuzendaritza talde hark eta ondorengoek hasitako lan aitzindariarekin azaldu zuen.

«Modu humilean hasitakoa nazioarte esparruan abesbatza munduko erreferente bilakatu da, gaur egun Europako abesbatza lehiaketa ospetsuenetako batean bihurtu delarik». 1969. urteantxi hasiz

abesbatza lehiaketa, eta bere 40 urtetan 1.000 abesbatza inguru eta 40.000 abeslari inguru hartu ditu. «40. Lehiaketa honen arrakasta ez da bakarrik abesbatza onak ekartzea baizik beraiek transmititzen dutena, kalitatea, teknika, sentimendua... jasoko dituen entzulego on bat edukitzea». Modu honetan TEEko lehendakariak gonbidatu nahi izan zituen herritarrek emaldietara joatera.

Galtzen ari den ohitura

Bestalde, Haritz Solupe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturaren Sustapen eta Hedapenerako zuzendari nagusiak kantuan aritzea betidanik izan dela ohitura gurean nabarmendu zuen, eta ohitura horretatik sortua izan zela Abesbatza Lehiaketa. Baina galtzen ari den zaletasuna da bere ustez; «herriaren nortasun handi bat galtzen da kantua galtzen bada, eta Abesbatza Lehiaketa antolatzen lan handia egiten du Tolosako Ekinbide Etxeak kantuari duen garrantzia emateko ardurari».

Mikel Irizar, Kutxako Kultura, Aisia eta Lankidetzak saileko arduradunak, bere aldetik, Kutxak aspaldiko lankidetzak duela Lehiaketarekin gogoratu zuen; «Lankidetzak hau luzaroko izatea da gure nahia; egun krisian gauden arren, Gizarte Ekinzarekin orain arte bezala jarraitzeko lanean segiko du Kutxak».

«Euskal kultura hedatuz»

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, bere aldetik, Tolosako Ekinbide Etxeak 40 urte hauetan egin duen lana nabarmendu nahi izan zuen. «Meritu handia da 40. urteurrena betetzea, eta horretarako jende askoren lana egon da atzean». Bestalde, gure kulturarentzat ekimen honek duen garrantziaz ere aritu zen: «Lehiaketan bertan euskaraz abesten dute parte-hartzaileak, eta abesti horiek ere hemendik at abesten dituzte, eta euskarazko egileak ere parte-hartzea izaten dute, beraz, euskal kultura hedatu egiten da; horretaz gainera, Abesbatza Lehiaketara jende garrantzitsua ugari etortzen da, eta horrek Tolosa erreferente bilakatu du». Hegoafrikako eta Letoniako enbaxadoreak eta Galiziako lehendakariordea izango dira aurtan, esaterako Tolosan.

Halaber, Bildarratzek kantuarekin lotuta hainbat proiektu garrantziar direla adierazi zuen; «Tolosak duen kantuak sena bultzatu egin behar da, eta horretan ari gara lanean, espazioak sortu nahian kantuak, gazteentzat batetuz ere».

Tolosatik kanpo ere bai

Urtero bezala, inguruko herrietan ere izango dute lehiaketan parte hartuko duten abesbatzetz gozatzeko aukera. Zirkuitua egingo dute aurtan ere, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Iparraldeko hainbat herrietan. Emanaldi berezi hauek Espainiako hainbat herrietara here hedatuko dira.

Gipuzkoako hiru abesbatza elkarrekin

Musika » Abesbatza Lehiaketa hasi aurretik, urtero bezala, Topaketa izango da bihar iluntzean, San Frantzisko elizan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean, urtero bezala, Tolosako Abesbatzen Lehiaketa hasi aurretik egin ohi den kontzertua antolatuko du. Emanaldia bihar izango da, San Frantzisko elizan, 20:00etan, doan.

Topaketa honetan, Gipuzkoako hiru abesbatza bilduko dira, eta baikoitzak bere egitarau eskaintzeaz gain, guztiak elkarrekin abesti batzuk kantatuko dituzte. Jose Manuel Tife izango da hirurak zuzentzeko aurtan gonbidatu duten zuzendaria.

Hala, aurtengo Topaketan parte hartuko duten abesbatzak Hondarribiko Eskifaia Abesbatza, Donostiako Mariaren Bihotza Abesbatza eta Arrasateko Goikobalu Abesbatza izango dira. Gipuzkoako Abesbatzen Federaziotik herritar guztiak animatzen dituzte emanaldia ikustera joatera.



2006an izan zen Topaketaren une bat. KLISK

Behar-Zanak jokoan du Endika Abril Txapelketaren finalerdia

Villabona » Partida etxean jokatuko dute, etzi, 11:00etan; eskuzkoan hiru partida izango dira jokoan Amasako pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Behar-Zana elkarteko errebote taldeak Endika Abril Txapelketako finalerdia jokatuko du etzi Villabonako plazan. Zubieta 1 izango dute aurkari. Partida hau irabazten duenak Luzaz Gazte taldearen aurka lehiatu beharko du final handian, azaroaren 2an, 11:00etan, Oartzunen.

Behar-Zanakoak hirugarren sailkatu ziren ligaxkan. Hamar puntu lortu zituzten, Kapito Harri taldeak bezala, lau partida irabazi eta bi galdu ondoren. Baina billabonatarrek aldeko eta kontrako puntuen arteko alde hobea zuten eta horregatik jokatuko dute finalerdia Zubieta Iean aurka, ligaxkan bigarren sailkatu zena. Luzaz Gazte taldea zuzenean finalera pasatu zen ligaxkan lehendabiziko postuan sailkatzeagatik.

Endika Abril Txapelketako finalera igarotzeko borrokatu egin beharko dute billabonatarrek, ligaxkan Zubieta Iean aurka galdu

egin baitzuten. 11 eta 13 izan zen markagailua zubietarren alde. Beraz, partida zaila izango da bi taldeentzat. Etxean jokatzeak abantaila eman diezaiotke billabonatarrei eta horregatik Behar-Zana elkartetik jendeari animatzen diote etzi partida ikustera joatera.

Lizaso eta Pebet berrirori batera
Eskuzko pilotari dagokionez, Behar-Zanako Lizaso-Pebet bikoteak asteberu honetan Gipuzkoako Kutxa sariko itzuliko partidak hasiko dituzte. Joaneke bost partidetatik lau irabazi eta bakarra galdu dituzte, eta hori 22-20 markagailuarekin.

Azken hiru partidak Jon Ander Esnaola beasaindarrarekin jokatuko ondoren, Antton Pebet ariko da berriz ere Iñaki Lizasoren bizkarzain lanetan Argentinatik itzuli berrikan, han 22 urte azpiko Munduko Txapelketan zilarrezko domina lortu eta gero. Seniorretako lau multzoetatik gogorrena egokitu bazaie ere, aukera bikaina dute hurrengo fasera pasatzeko, orain arteko joko mailari eutsita bederen.

Bihar izango dute partida, 16:30ean Amasan. Lizaso eta Pebet Azpeitiko Ilumpe taldearen aurka jokatuko dute. Joaneke partidari

22-14 irabazi zuten Behar-Zanako pilotarietara eta oraingo honetan ere garaipena lortzen saiatuko dira.

Asteburuan beste bi partida ikusteko aukera izango da Amasako pilotalekuan. Gaur, 21:30ean, Beñat Karrerak jubenil mailan buruz buru jokatuko du Arrasateko taldearen aurka. Karrerak sake bikaina eta bigarren kolpe ona du, eta hortaz baliatzen saiatuko da.

Ondoren, Jon Ander Artazak eta Kepa Nazabalek jokatuko dute kadete 2. mailan. Hauek saikapearen erdian kokatuta daude zortzi bikoteez osatutako multzoan.

Jendea pilotalekura azaltzera animatzen dute Behar-Zanako ordezkariak, «pilotariak animatu eta giro polita sor dadin».

Bestalde, Behar-Zanako beste pilotarietara ere partidak izango dituzte etxetik kanpo. Esnaolak eta Arretxek atsedena izango duten arren, Aranburu eta Iraetak Beasainen jokatuko dute senior mailan, Ordozgoiti eta Inza jubenil bikoteak Alkizan izango dute beren partida ostiral iluntzean, Etxarri-Otaegi kadeteek Bergarako Muni- zipalean jokatuko dute ostiral arratsaldean eta Otaño-Otaegi bikoteak berriz Arrasaten izango dute beraien zita.



Lakuntza taldeko jokalariek eta entrenatzaileak. HITZA

Bigarrenengo postuan dago Lakuntza taldea

Villabona » Lau partidetatik hiru irabazi dituzte, bederatzi puntu lortuz; hurrengo partida bihar izango da, etxean.

ERREDAKZIOA

Areto futboleko Transportes Lakuntza taldeak oso ondo ekin dio Euskal Ligako bigarren denboraldiari. Lau partidetatik hiru irabazi ditu eta bederatzi punturekin bigarren doa saikapean. Azkeneko partida etxetik kanpo jokatuzuen eta 5-8 irabazi zioten Alegria Dulantziri. Partida so ondo hasi zen billabonatarrentzat, 3 eta 0 irabazten hasi zirelako. Baina bigarren zatian partidak abiada handia hartu zuen eta 3-4ko markagailua izan zuten denboratez.

Hurrengo partida bihar jokatuko dute, etxean, Olaederra kiroldegian, Lakuntzakoek. 18:00etan hasiko da Barakaldo Kanikas Infracoman taldearen aurkako norgehiagoka.

Bestalde, Urritza Tabernak lehen porrota izan zuen. 1-4 galdu zuten Ordiziako taldearen aurka. Ordiziarrak hasi ziren irabazten partida, baina Urritza Tabernakoek berdinketa lortu zuten. Gero, etxeko atezaina kalera bota zuen epaileak eta azkenean beste hiru gol jaso zituzten billabonatarrek.

Bestalde, Urritza Tabernak lehen porrota izan zuen. 1-4 galdu zuten Ordiziako taldearen aurka. Ordiziarrak hasi ziren irabazten partida, baina Urritza Tabernakoek berdinketa lortu zuten. Gero, etxeko atezaina kalera bota zuen epaileak eta azkenean beste hiru gol jaso zituzten billabonatarrek.

Jesusen Bihotzakoen mendi irteera, etzi

ERREDAKZIOA

Iaz hasitako ekimenari jarraituz, Jesusen Bihotza Ikastolaren Guraso Elkarteak 2008-09 ikasturtean zehar hiru mendi irteera antolatzen ari da eta lehenengoa etzi egingo dute, Ateagako itzulia. Fraisoro, Ateaga, Lumane eta Villabona izango da ibilbidea.

Irteera Txermingo Ikastolatik izango da, 10:00etan, eta itzulera 12:30ak aldera aurreikusten da,

Txermingo Ikastolan ere. Norberak eraman beharrekoak hamaitaketa eta edaria, mendiko oinetakoak eta arropa egokia, eta xira edota aterkia eguraldia ez bada oso ona.

Nahi duen guraso eta ikasle orok har dezake parte irteeran. 12 urte bitarteko ikasleekin (6. maila) helduren bat joateko komenigarria dela ikusten dute, hiru umeko heldu bat, esaterako.

SASOI BERRIETARAKO EZKATAK
HITZAren arropa berria salgai

salmenta puntuak
Tolosako DENAK tabernan
HITZAko Tolosa eta Leitzako bulegoetan

arropak ikusgai: www.tolosaldekohitza.info

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

hitza

txokoa **h** "Evolution & Love" ikuskizunerako

2 sarrera pare zozketan

irabazleak:

- Edurne Muñagorri Arozena (Tolosa)
- Isabel Rekalde Goikoetxea (Tolosa)

Gaur, ostirala 20:30etan
Tolosako Leidorren

2 tarta zozketan

irabazleak:

- Amaia Goikoetxea Etxeberria (Bedaio)
- Juana Lopetegi Erasuskin (Alegia)

Bihar, larunbata eguerdiko 13:00etan
San Frantzisko pasealekuan

HITZA jarriko da irabazleekin harremanetan

3 harpidetza zozketan

Kantxatik aldizkaria

irabazleak:

- Mikel Txapartegi Ormaetxea (Tolosa)
- Inazio Leiza Azpiroz (Elduain)
- Maddalen Iztueta Maiz (Abaltzisketa)

Laburrak

Jubilatuen Eguna ospatuko dute etzi

ALTZO • Jubilatuen Eguna egingo dute etzi Altzon. 12:00etan meza nagusia izango da, Beasaingo Asmube abesbatzarekin eta Altzoko Artea dantza taldearekin. 14:00etan bazkaria Arandia jate-txean, bertsolariak eta trikitilariak aila-tuta.

II. Argazki Rallyaren txanda bihar goizean

ASTEASU • Kultur Jardunaldien bigarren eguna bihar bertan izango da. Atzoko Imanol Ubeda eta Karlos Aranzegiren zuzeneko musikaren ondoren, biharkoan Asteasuko II. Argazki Rallyaren txanda bihar goizean. 09:00etatik 13:00etara bitartean izango da eta Kultur Etxean izango du hasiera. Bertan parte-hartzaileei jakinaraziko zaie zein izango den gaia.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketaren bi partida

IKAZTEGIETA • Gipuzkoako Kluben Arteko txapelketan, senior mailan eskuz binaka, bihar Ikaztegieta frontoiaren bi partida izango dira, 11:30ean hasita. Elordi-Herrigintza Oiarpe ten aurka eta Elordi-Herrigintza Beloki 2ren aurka ariko dira.

Peñagarikano eta Egaña, lurre elkartean bihar

TOLOSA • Lurre elkartean bertso afaria egingo dute bihar. 21:00etan hasiko da eta bertan parte hartuko dute Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariak.

Tolosa Kantariren saio berri bat bihar goizean

TOLOSA • Bihar Tolosa Kantari egitasmoaren beste saioa bat izango da Alde Zaharreko eta inguruko kaleetan, 12:00etatik aurrera, Maria Luisa Agirre doktoarearen plaza-txotik (Tontokaletik) abiatuta. Trikitilariak lagunduta izango da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Ostiral eta larunbat iluntzetan sukaldari gisa aritzeko pertsona behar dugu. Deitu 699 71 02 73 zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Artzai-zakurra galdu dugu, Tolosako tren geltokiaren inguruan. Deitu: 627 459 919.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako alde zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.

Salaketa jarri du Ertzaintzaren aurka larunbateko atxilotu baten abokatuak

Politika • Donostiako epaitegira jo du, hilaren 18an, Lasa eta Zabala omenaldian gertatutako salatzeko asmoz.

ESTI EZEIZA

Pasa den larunbatean, Lasa eta Zabala omenezko manifestazioan, Tolosan atxilotu zituzten herritarrek laguntzera joan zen abokatuak Ertzaintzaren aurkako salaketa jarri du. Halaber, astearte goizean joan zen Aiert Larrarte abokatuak Donostiako epaitegira.

Denera, eskualdeko zazpi lagun atxilotu zituzten egun horretan eta Tolosako komisaldegira eraman zituzten. Salaketan adierazitakoaren arabera, Mikel Zabala atxilotuari adierazpenak hartzen ari zen instruktoreak mehatxu egin zion esanaz, ez bazuen deklaritzen, astelehenera arte geratuko zela atxilotuta. Bestalde, Zabala tolosarrak azaldutakoaren arabera, «deklaratzaren ari nintzen bitartean, txano batez aurpegia estalita zuen agente bat sartu zen gelara, eta nire aurrean jarri zen, zuzen-zuzen begiraturaz, beldurtzeko asmoz». Bere ustetan, ertzain horrek ez zuen zertan hor egonik. Hala, bigertae-ra hauek, hau da, instruktorearen mehatxuarena, eta aurpegia estalita zuen gizonarena, aktan agertzeko eskatu zion Zabala instruktoreari. Baina honek ez zuen onartu. Hori dela eta, ertzain instruktoreak idatzitako agiria ez sinatzea erabaki zuen abokatuak. Gainera,



Hainbat lagun bildu ziren, Lasa eta Zabala erailketaren urteurrena gogoratzeko; istilu ugari izan ziren bertan. N.U.

abokatuak agertu zuen ere, agenteak ez zituela jaso izan nahi, berak ez sinatu nahi izanaren arrazoiak. Bestetik, Mikel Zabala sinatu behar izan zuen, aske utzi zezaten.

19:00etarako deitua zegoen manifestazioa eta hamabost minutu beranduago atxilotu zituzten eskualdeko zazpi lagunak. Komisaldegian eduki ostean, gauerdia alde-ra askatu zuten Mikel Zabala. Bera izan zen deklaratzaren lehena, eta gainontzeko zazpiak, 03:00ak bitartean askatu zituzten. Orain epaiketaren zain daude, baina ez dakite noiz izango den.

Mikel Zabala izan ezik, gainontzeko ofiziozko abokatu batek lagunduta egin behar izan zituzten deklarazioak. Larrarte abokatuak

jarritako salaketan adierazitakoaren arabera, Iñaki Elduain atxilotuak «konfiantzazko» abokatu batek lagundua izatea eskatu zuen, baina Ertzaintzaren esan zioten, ezin izan zutela aurkitu berak nahi zuen hori. Ondorioz, ofiziozko abokatu batek lagundu zion. Baina, Larrartek idatzitako agiriaren arabera, ertzainek nahiz eta jakin Elduainen eskatutako abokatuaren bufeteko kide bat komisaldegian zegoela, ez zioten abisatu. Izan ere, abokatu hori, Mikel Zabala laguntzen ari zen.

Aralar alderdiaren salaketa

Lasa eta Zabala gogoratzeko Tolosan aurreko larunbatean egindako ekitaldian izan ziren istiluen ondo-

ren, Tolosako Aralarrek salatu du Ertzaintzak izan zuen neurritz eta lekuz kanpoko jarrera. «Ezker abertzaleko sentsibilitate bat ordezkatzaren duen alderdiak» esan duenez, Audientzia Nazionalak ekitaldia debekatzeko agindua zertara etorri zen ez du ulertzen, eta aspaldian «salbuespen epaitegi» hori hartzen ari den erabakiak kritikatu ditu.

Debekurako agindua hor egon arren, eta Ertzaintzak agindua betearazteko beharra izan arren, epailek emandako aginduak beste era batera betetzeko modua dagoela uste du Aralarrek, «ertzainek Tolosan erakutsitako jarrerarekin gatazka areagotzea baino ez delako lortzen».

PURRITX, PORRITX eta MARIHOTATS

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

PANPINAK

DVDa (posterra opari) **18€**

Panpina bakoitza (txapa opari) **20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen **902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info** adierazi harpidetza kodea

hitza

KM kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

2008ko irailaren 17tik azaroaren 8ra

ERAKUSKETA
Ganbara 3. pisua

CORMAN
KRISI KABINETEA

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
e-mail: kmk@komazk.com
Bisitaldi gidatuak taldeentzat:
Tel. 943 112 757 / 667 346 025

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Enkarga Departamentua



Julian Rodriguez, Nekane Ciganda eta Alberto Etxeberria, Gainditzen, gorren elkarteko kideak. ESTI EZEIZA

Bihar, Euskal Herriko lehen gorrentzako zine jaialdia

Kultura » Gainditzen elkarteak antolatuta, nazioarteko zazpi laburmetrai izango dira ikusgai. Ekitaldia Hirukide Eskolapioak ikastetxean izango da 18:30etik aurrera.

ESTI EZEIZA

Lehendabiziko aldiz, Nazioarteko Gorren Zinema Jaialdia ospatuko da bihar. Orotara, zazpi laburmetrai izango dira ikusgai. Ekitaldia Hirukide Eskolapioak ikastetxean izango da 18:30etik aurrera. Egitasmoa Gainditzen, Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren elkarteak antolatu du, eta inguruko jende asko hurbiltzea espero dute. Zinema jaialdirako sarrerek 3 euro balio dute, eta ikastetxean bertan, hasi aurretik erosi daitezke.

Gorrentzako zinemaren ezauzarrietako bat da, gehiago dela ikusteko gainontzeak baino. Zeinuen hizkuntzaren bitartez hitz egiten dute aktoreek. Dena ikusmenaren bitartez jasotzen da, entzumenaren beharrik gabe.

Bihar ikusi ahal izango diren filmeetan, zeinu hizkuntzaren bitartez agertuko dira gauzak. Baina baita, gorputz eta aurpegi adierazpenarekin. Izan ere, ahozkoarekin gertatzen den arabera, zeinu hizkuntza ezberdinak daude, eta film

» NAZIOARTEKO GORREN ZINEMA JAIALDIA

■ **'Rosa'**. Max Giovannardiren filma da hau. Italiarra da bera eta 11 minutu irauten du.

■ **'Coming out eta Oratio'**. Biak ere Louis Neethling-en lanak dira. Ingalaterrakoak dira film hauek. Lehendabizikoak 7 minutuko iraupena du eta bigarrenak, 10ekoa.

■ **'Secuestro fatal'**. Madrilgoa da film honen zuzendaria, eta Manuel Colinas du izena. 21 minutu irauten ditu lanak.

hauetan, herrialdearen arabera, aldatu egiten da. Hori dela eta, antolatzaileen esaneta, gor askorentzat ere zaila izango da gauza batzuk ulertzea. Esaterako, *Pirata* izeneko filman gerra batetaz hitz egiten da. Protagonista, gerran dagoen soldadu bat da, pirata bat, eta eskuekin kontatzen du dena.

Bereziki gorrei zuzenduta baldin badago ere jaialdia, edozeinek har dezake parte. Julian Rodrigez, Gainditzen elkarteko kidearen esanetan, «ziurrenik, memento asko ulertzeko garaian, zailagoa egongo zaie gorrei, besteei baino». Dena den, film batetik bestera alde handia dago, eta batzuk ulertzeko errazagoak dira.

Film guztiak ezberdinak dira, gai, genero eta argumentuagatik.

■ **'Sueño cumplido'**. Film hau ere espainiarra da, eta Christian Gordo da bere egilea. 16 minutu inguruko iraupena du.

■ **'Sordomuda de pueblo'**. Lazaro Contreras da film honen zuzendaria. Cuencan dago egin hau eta 30 minutuko iraupena du.

■ **'Pirata'**. Frantziarra da lan hau, Tolosakoa hain zuzen ere. Remi Levan da zuzendaria eta 30 minutuko iraupena du.

Hala ere, gehienak nahiko berriak dira. Lanak aukeratzeko garaian, Madrilgo gorren elkarteko kide batzuek lagundu diete. Hauek, Milango zinema jaialdian izan baitziren.

Euskal Herrian ospatzen den lehendabiziko gorren zinema jaialdia da. Antzerki eta mimo jaialdiak, hitzaldiak... gauzatu izan dira orain arte. Baina horrelakorik ez. Ekimen honen helburua da, gorrrak zinema ikustera erakartzea eta komunikazio mugak gainditzeko. Julian Rodrigezen ustetan hau oso garrantzitsua da.

Gero eta film gehiago egiten dira gorrentzat. Baina hauek, laguntza ekonomikoengatik baldintzatu daude, «diru asko behar baita honetarako».



Fernando Ruiz, Iñigo Asensio eta Iban Garate, ikuskizuneko kideak. I. TERRADILLOS

Gaur estreinatuko da 'Evolution & love' ikuskizun berritzailea

Kultura » 20 lagun izango dira eszenatoki gainean, dantza, musika eta antzerki bidez maitasun istorio bat kontatuko.

ERREDAKZIOA

Evolution & love ikuskizuna estreinatuko da gaur iluntzean Leidorren. Amodioa eta norberaren sinesteen aldeko borroka bideko istorioa kontatzen da bertan, musika, dantza eta antzerkia erabiliz. Emanaldia 20:30ean hasiko da.

Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena Donostian. Bertan izan ziren Iñigo Asensio ekoizlearekin batera izan ziren, Iban Garate eta Fernando Ruiz aktoreak.

Hitza gutxitan erabiliko dute protagonistek, gorputz espresioaren bitartez kontatuko baitute nagusiki istorioa. Dena den, Iban Garatek kontalari orojakilearen pa-

pera hartuko du, eta tarteka, bere agerraldiekin, maitasunaren inguruko galderak luzatuko dizkie ikusleei.

Eszenatoki gainean, dena 20 artista ariko dira. Horietatik bederatzia musikoak dira, hamar, dantzariak eta Iban Garate, kontalaria. Haei Oihana Maritorea eta Fernando Ruiz, aktore dantzariak gehitu behar zaizkie. Parte-hartzaileen esanetan, «luxu bat da, horrelako ikuskizun batean zuzeneko musika izatea». Honenbestez, musika nahiz dantza estilo oso ezberdinak taularatuko dituzte.

Urtarrilean jarri zen martxan ekimen hau. Hala, euskal dantza eta musika uztartzen zituen hasierako proiektu batetik abiatuta, «ikuskizun handi batean bilakatu da». Iban Garatek atzoko aurkezpenean zioen bezala, «atzo sartu nintzen lehendabiziko aldiz Leidor antzokian, eta orduan ohartu nintzen, egiten ari ginenaren beteak handitasunaz».

Osasun eta gizarte diru laguntzak atera dira

Gizartea » Arlo horretan lan egiten duten talde eta elkarteek eska ditzaketek; azaroaren 28an amaituko da horretarako epea.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, zabalik da dagoeneko, Tolosako Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako alorrean lan egiten duten talde eta elkarteek Udalarri egiten dizkieten diru laguntzak eskatzeko epea. Hau, azaroaren 28ko 13:00ak arte egongo da irekita, marxismoaren batera, oinarrietako 4.1 puntuan aipatzen den doku-

mentazioa ekarri beharko dute eskatzaileek.

Epez kanpo aurkezturiko eskaerak edota ezarritako eredutik kanpo gelditzen direnak ez dira kontuan hartuko. Diru laguntza huen arautzen dituzten oinarri eta eskaera orriak leku hauetan daude, Tolosako Udalerriaren webgunean (www.tolosakoudala.net) eta Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailean.

Honen ordutegia da: astelehenean ostiralera (ostegunetan izan ezik), goizeko hamarretatik ordu bata barne. Bestetik, harremanetarako telefono zenbakia da: 943697460.

'Manifestu komunista' liburu ezaguna aurkeztuko dute laister

ERREDAKZIOA

Hilaren 30ean, 19:30ean, Engels Ateneoan *Manifestu Komunista* liburu klasikoa aurkeztuko dute. Errementari 8, Tolosako Alde Zaharrean dago kokatua Euskal Herria Sozialista Aldizkariko engeio-tza.

Orain dela 150 urte baino gehia-

go idatzitako liburu honek modu harrigarri batean azaltzen du egungo munduko egoera.

Bestalde, Engels Ateneoan, marxismoaren liburuak aurkitu daitezke. Hala ere, badira bestelako liburu politiko, filosofiko eta historikoak.

Liburu bilduma hau osatzearen

helburua da, liburu marxista klasiko engehiengoa eskaintzea. 100 liburutik gora dituzte apaletan, liburutegian bertan edo etxean irakurri ahal izateko. Ateneoa, astehelentetik ostiralera dago irekita arratsaldeko bostetatik zortietara, marxismoaren liburuak eta ideiak ezagutzera gonbidatuz.



Iruditan eta hitzetan gogoratuz

TOLOSA ● Joxi Zabala eta Joxean Lasaren XXV. urteurrena gogoratzeko, DVD emanaldia eta hitzaldia egin zituzten atzokoan Tolosako Kultur Etxean. Ikus-entzunezko proiektioan, bi gazte tolosarren inguruko hainbat xehetasun gogorarazi ziren, garaiko telebista

irudietan oinarriturik. 30 minutuko muntaiairen ondoren, Torturaren Aurkako Taldearen abokatuak, Aier Larralde, hitzaldia eskaini zuen bi tolosarren inguruan. DVD emanaldia eta hitzaldia 50 lagun inguru gerturatu ziren. A. IMAZ



Orioko haurrak herritik herrira

LEITZA ● Ez da lehen aldia eta itxura guztien arabera ez da azkena izango: oriotarrak Leitza. Atzokoan DBH 1-eko Orioko Herri Ikastolako ikasleak egon ziren herriko plazan bazkaltzen. Goizean Iruñean egon zirela

aipatu zuten, Planetarium-ean. Izan ere, unibertsoa ikasten ari omen dira eta txango hau egitea otu ziztzairen. «Hiria baino herria nahiago dutenez», ondoren Leitza gerturatu ziren, bazkaltzera eta jolastera. A.I.



Mendietan nahi baino gutxiago

LEITZA ● Altzadi Leitzako Kultur Taldeak antolatutako Mikologialdia ziza eta onddoak bezala martxan da. Lehen bi egunetan, astiro-astiro, ia ezkutuan, ondoren egindako lana erakusteko. Batzuk perretxiko bila dabil-tzan bitartean, haurrak marrazkiak egiten ari dira. Bihar 09:30ean denak elkartu eta mendira joango dira. Etzi berriz erakusketa Mikologikoa egin-goto dute Karrapen, 11:00etatik aurrera. Bertan haurren marrazkiak ikuste-ko aukera ere egongo da. Antolatzaileek gaur iluntzean batzarra egingo dute Karrapen aurkitutako ziza eta onddoak aztertzeko. A. IMAZ



Ezker hormako Emakumea Pilotari Txapelketaren lehen jardunaldia. A. IMAZ

Emakumea Pilotari, eskola eta ikastaroa Ibarren eta Tolosan

ASIER IMAZ

Ezker hormako III. Emakumea Pilotari Txapelketa urriaren 11n hasi zen Amasako pilotalekuan. Aurreko astean Ataunen izan ostean, hirugarren geltokia Tolosako Beotibar pilotalekuan izango du bihar, 15:30etik aurrera.

Guztira 5 partida jokatuko dira jardunaldi honetan; jaialdiari hasiera emanaz, lehen mailako bi partida, eta ondoren, 2. mailako hiru.

Pilota eskolak hastear

Datorren ostiralean, urriaren 24ean, hasiko dira saioak Tolosa-Ibarako Nesken Pilota Eskolan. Entrenamendu eguna ostirala izango da, 17:30etik 19:00etara. Ibarako San Inazio auzoko frontoian eskainiko dute ikastaroa ekainera arte. Kuota hilean 9 eurokoa izango da eta izena emateko 676 05 52 54 - 943 47 14 63 telefonoetara deitu beharko da.

20 urtetik gorakoentzat

Aurreko bi urteetan bezala, 20 urtetik gorako emakumeentzat ikastaroak izango dira azaroan hasita. Orduetgia izena ematerako garaian aukeratu da. Tolosan eta Ibarren eskainiko dituzte ikastaroak. Izena emateko telefonoak: 676 05 52 54 - 943 47 14 63.

Pausoka Akademia

ERREFORTZU KLASEAK:
(materia guztiak)

Lehen hezkuntza, D.B.H. eta Batxilergoa

HIZKUNTZAK:

Ingelera, Frantsesa, Italiara, Arabiera, Euskara eta Gaztelera atzerriarrentzat

TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK
ANIMA ZAITEZ,
IRAKASLE EZIN HOBEAK DITUGU!

Martin Jose Iraola, 2. behea • TOLOSA
mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48



14°
10°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 15°
HOTZENA 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Aduna.** Asvineneak ekialde-ijito dantza ikastaroa antolatu du igande honetarako. Idoia Garai izango da irakaslea eta 10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 18:00etara izango da ikastaroa. Ikastaroan izena eman nahi duneak 676 943715 telefono zenbakira dei dezake.
- **Alegia.** Sendagile etxean odol-ematea izango da ostiralean, 19:00etatik 21:00etara bitarte.
- **Oresa.** Gazta kata gidatua egongo da Bittor Rodriguezen eskutik 20:00etan, Kultur Hamabostaldien barruan.
- **Tolosaldea.** PNV, EA, IU y Aralar alderdiek hilaren 25ean Legutiora *Hitza* Hitz bakea eta erabakitze eskubidearen aldeko kontzentrazioa autobusak antolatu dituzte, tren geltokitik 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 688 677307 telefono zenbakian.

Musika

- **Tolosa.** Lauroba eta Chicarella taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
- **Tolosa.** *Evolution & love* musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen emanaldia Leidorren, 20:30etik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikunik.

Ahots garaikide gozonen artean

Tolosa » Teresa Salgueiro artista portugaldarrak kontzertua eskainiko du bihar, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera.

ERREDAKIZIOA

Mundua Tolosan zikloari jarraitzen emanez, bihar maila handiko kontzertua entzuteko aukera izango dute 20:30etik aurrera Leidor aretora hurbiltzen direnek. Hain zuzen, Teresa Salgueiro artista izango da entzungai, Lusitania Ensemble boskotearekin batera.

Euskadin estreinakoz aurkeztuko du portugaldarrak *La serena* bere bakarkako lana. Madreus taldean aritu izan da urtetan Salgueiro, baina duela urtebete etenaldia iragarri zuten; orduan ekin zion bere bakarkako ibilbideari. Bera ikusteko sarrerak salgai daude Servikutxa, Telekutxa, www.kutxa.net eta Leidor aretoko lehiatilan.

Artistari buruzko hainbat datu

Teresa Salgueiro (Amadora, Portugal, 1969) 1987. urtean hasi zen Madreus taldearekin lanean. Salgueiro gaztea zela fado abesteari ekin zion Lisboako kaleetan. 16 urte zituela hiriburura joan zen bizitzera eta, horrela, kantuaren munduan jarraitza.

Hain zuzen ere, 1987an ezagutu zuen abeslariak Pedro Ayres gita-



Bihar izango da entzungai Teresa Salgueiro Leidor aretoan. HITZA

rra jole eta ekoizlea. Harekin eta Francisco Ribeiro biolontxelo jolearekin, Gabriel Gomes akordeoi jolearekin eta Rodrigo Leao teklatu jolearekin batera Madreus taldea osatu zuen. Guztira 11 disko grabatu dituzte eta beti elkarrekin egon dira, duela urtebete etenaldia iragarri zuten arte.

Egun, abeslari garaikide onenen artean kokatzen dute adituek Salgueiro. Kolaborazioak ere egin ditu abeslari ezagunekin, tartean, Carlos Nuñez eta Antonio Chaimhorekin (2000. urtean). Josep Carrerarekin ere abestu zuen Milenio jaialdian.

Mundua Tolosan-ek artista ugari ekarri ditu Tolosara

2007ko udaberrian ekin zion ibilbideari, Mundu Tolosan ekimenak. Ordutik Mariza fado abeslaria, Carlos Nuñez gaita jotzailea, Cesarea Evora eta Noa abeslariak izan dira Leidor aretoko eszenatokiaren. Azken honek, gainera, zeresan handia piztu zuen.

Syntorama enpresa donostiarrak kudeatzen du ekimena eta helburua Tolosa nazioarteko abeslarien topagune izatea da, besteak beste.

Teresa Salgueiroren kontzertuaren ondoren, azaroaren 8an, Poloniako Kroke taldea helduko da Tolosara, *Seventh Trip* lanarekin. Urteko azken saioa Bellydance Superstars dantza taldearen *Babesque* lana izango da, azaroaren 15erako aurreikusita dagoena.

TABAKALERA

ERAKUSKETA

2008/urriak 24-abenduak 20
Asteazkenetik igandera
18:30 - 20:30
Sarrera doan

www.tabakalera.eu

Oharpenak: sarrak zuzenean, bitartekari eta erabiltzaile bidez
Bilketak: bitartekari bidez

Ahaztu ez: bitartekariaren (Guztira: 0210503)

Mundua y Mitu de Tolosa

EGIA *tik*

www.tabakalera.eu

ERAKUSKETA

2008/urriak 24-abenduak 20

Asteazkenetik igandera

18:30 - 20:30

Sarrera doan

www.tabakalera.eu

Oharpenak: sarrak zuzenean, bitartekari eta erabiltzaile bidez
Bilketak: bitartekari bidez

Ahaztu ez: bitartekariaren (Guztira: 0210503)